# Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 8. saioa
## Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 8

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2017ko martxoaren 14a**/ 28 de junio de 2017<br>**Udalbatza aretoa** /pleno<br>**18:30** / A las 18:30 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **20:30 /** A las 20:50 horas |

## GAI ZERRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

1.Aurreko aktaren onarpena (10 minutu)
2.Mendizorrotzeko (Iranguen eta Egiluze) kudeaketa plana (20 minutu)
3.Klima aldaketara egokitzeko Plana (20 minutu)
4.Uliako Plan Berezia (20 minutu)
5.Norberak lekarkeena (10 minutu)

1.Aprobación del acta anterior (10 minutu)
2.Plan de Gestión de Mendizorrotz (Iranguen eta Egiluze) (20 minutu)
3.Plan de Adaptación al Clima (20 minutu)
4.Plan Especial de Ulía (20 minutu)
5.Ruegos y preguntas (10 minutu)

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Gune Publikoetako, Ekologiako eta Festa Jardueretako zinegotzi ordezkaria**<br>Concejal delegado de Espacios Públicos, Ecología y Actividades Festivas |
| TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | PSE m<br>IRABAZI |

| | |
|---|---|
| KONTSEILUKO KIDEAK<br>VOCALES DEL CONSEJO | 1.ARANZADI Zientzia Elkartea.<br>2.HARITZALDE<br>3.INGEBA<br>4.COAVN-GI<br>5.EGUZKI<br>6.Herritar norbanakoa 4<br>7.SEO-DONOSTIA |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | HERRITAR NORBANAKOA 2 , HERRITAR NORBANAKOA 1 , Donostialdeko EA21 TALDEA |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren** A **burua**<br>Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad<br><br>**Ingurumeneko zuzendaria**<br>Director de Medio Ambiente |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Emakumezkoak /** Mujeres =**3**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **9** |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren burua**<br>Jefa de Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad<br>ingurumena@donostia.eus |

## Saioaren bilakaera:

## Desarrollo de la sesión:

### 1. Aurreko bileraren akta onartzea

Eguzkik eskatu du 3. puntuko azken oharra aldatzeko eta bertan jasotzeko Ingurumeneko Aholku Kontseiluan jadanik adostu zutela jai egitarauan ez zituztela zezenketak sartuko. Eskatu dute akta aldatzeko eta ekarpen hori jasotzeko.

Akta onartu dute, adierazitako aldaketa eginda.

### 2. Klimara Egokitzeko Plana

Gai zerrenda aldatu dute: lehendabizi, Egokitzapen Plana aurkeztuko dute, horren ostean hizlariak joateko modua izan dezan.

Tecnaliako Klima Aldaketako kudeatzaileak, Donostiako Klimara Egokitzeko Plana idatzi duen taldearen koordinatzaile gisa, plana aurkezteari ekin dio.

Aurkezpenaren ostean, galderak egiteko txanda bat ireki dute, eta Haritzaldeko ordezkariak adierazi du, aurkezpena gaztelaniaz izan denez, dokumentu grafikoa euskaraz egotea litzatekeela egokiena.

Horrez gain, adierazi du politika orokorrak eta hiri ereduak (turismoa areagotzea, landare estalkia kentzea, hezeguneak okupatzea eta abar) ez direla lagungarriak klima aldaketa arintzeko.Hori dela eta, adierazi du Udalak benetan aldatu behar duela jarrera, klima aldaketa arintzeko eta horri egokitzeko hartua duen konpromisoaren emaitza gisa.

Eguzkiren ordezkariak jakinarazi du oso egokia iruditzen zaiola dokumentuaren egitura, eta, zehazki, 16. puntua; izan ere, esaten du mugatu egin behar dela lurraldearen artifizializazioaren hazkundea, bero boladei eta euriteek eragindako uholdeei aurre egiteko. Hala ere, adierazi du ez duela uste urteko eta hainbat urteko eguneroko errealitatea ildo horretatik doanik, Belartza eta halako etsenpluak aintzat hartuz gero. Ibai parkeari dagokionez, adierazi du eremu hori beti hartu izan duela urak, eta, hala ere, une oro ari direla mugatzen, esate baterako, etxebizitza berriak eraikiz eta hirugarren erreia eginez.

4. herritarrak adierazi du komenigarria litzatekeela adituen batzorde bat eratzea HAPOaren garapenean lurraldea planifikatu eta antolatu behar dutenean. Uste du aditu horien iritzia kontuan hartu beharko litzatekeela eta

### 1. Aprobación del acta de la última reunión

Eguzki solicita que se cambie la última anotación del punto 3, para recoger que ya se había acordado en el CAMA que en los programas de fiestas no se recogerían las corridas de toros. Solicita que se modifique el acta para recoger esta aportación.

Se aprueba el acta con la modificación indicada.

### 2. Plan de Adaptación al Clima

Se modifica el orden del día para que la presentación del Plan de Adaptación se realice antes del resto de puntos para que el ponente pueda ausentarse tras la presentación.

El Gerente de Cambio Climático de Tecnalia en calidad de coordinador del equipo redactor del Plan de Adaptación al Clima de San Sebastián procede a presentar el mencionado Plan.

Tras la presentación se procede a un turno de preguntas y el representante de Haritzalde indica que lo adecuado hubiera sido que al ser la presentación en castellano el documento gráfico fuera en euskera.

Asimismo, indica que la política general, el modelo de ciudad (incremento del turismo, eliminación de cubierta vegetal, ocupación de humedales etc.) no ayudan a que se de una mitigación en cambio climático. Por ello, indica la necesidad de que fruto del compromiso hacia la mitigación y adaptación al cambio climático se de un cambio de actitud real del ayuntamiento.

El representante de Eguzki informa que le parece muy adecuada la estructura del documento y en concreto le parece muy adecuado el punto 16 en la que se especifica limitación al crecimiento de la artificialización del territorio para hacer frente a olas de calor y a inundaciones de origen pluvial. No obstante, indica que a su parecer la realidad cotidiana anual y plurianual no va en este sentido, con ejemplos como Belartza. En lo referente al Parque fluvial, indica que es una zona inundable de siempre y que se está acotando permanentemente, como por ejemplo, con la construcción de las nuevas viviendas y la construcción del tercer carril.

La ciudadana nº 4 indica que sería conveniente que en la la planificación y ordenación del territorio cuando se desarrolla el PGOU haya una comisión de expertos que participe y que su opinión sea tenida en cuenta y sean participantes de

eskubide osoko kide gisa parte hartu behar luketela prozesuan.

Irabaziko ordezkariak nabarmendu du garrantzitsua dela herritarrak psikologikoki eta mentalki prestatzea kaos egoeretarako. Horretarako, oinarrizko alderdiak identifikatu behar dira, bai eta autokontzientzia, partaidetza, autobabesa eta beste hainbat alderdi ere. Iruditzen zaie ikastetxeetan, Agenda 21az gain, eskolaz kanpoko jarduerak egin beharko lituzketela, jendeari hainbat alderdiren gaineko prestakuntza emateko: erantzunkidetasuna, klima aldaketa, hondakinak (esate baterako, tuper kanpaina ostalaritzan), bizikleta elektrikoak, energia berdeko puntuak izango dituztenak kargatzeko, disuasio parkingak eta abar.

Ekologiako zinegotzi ordezkariak azpimarratu du garrantzitsua dela Klima Aldaketara Egokitzeko Plana. Adierazi du, besteak beste, plan hori Klima 2050 Ekintza Planarekin eta Hondakinen Plan Gidariarekin osatzen dela, eta dokumentu horietan sartu zirela aipatu diren ekintzetako batzuk. Egokitzapen Plana martxoan onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak. Plana herritarren, udal teknikarien eta adituen partaidetzarekin egin da, eta Udalak gai honekin duen konpromisoa ezartzen da bertan. 31 ekintza jasotzen ditu: horietako batzuk sakondu egin behar dira, eta beste batzuk zuzenean jarriko dira martxan.

4. herritarrak galdetu du planeko ekintzak HAPOan sartuko al diren. Ekologiako zinegotziak erantzun dio badagoela lotura bat Egokitzapen Planaren, HAPOaren eta Klima DSS 2050 ekintza planaren artean.

Ingurumeneko zuzendariak adierazi du hiriko lehen egokitzapen plana dela, bai eta TGBk onartutako lehen dokumentua ere, artifizializaio gehiagorik ez dela izango esaten duena, nahiz eta zenbait garapen jadanik erabakita dauden. Hala ere, Plan Orokorraren hurrengo berrikuspenean, 0. minututik sartu beharko dira Egokitzapen Plana eta Klima Estrategia haren idazketan.

Era berean, adierazi du Plana martxan dagoela, jadanik egin dela lehen bilera Egokitzapen Mahaiarekin 2017-2018ko ekintzak zehazteko eta hor atal espezifikatu guztiek izan dutela parte hartze handia; hori oso positiboa da; izan ere, normalean ez da halako inplikaziorik izaten.

## 3. Mendizorrotzeko Kudeaketa Plana (Iranguen eta Egiluze)

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren buruak Mendizorrotzeko Kudeaketa Planean egindako aldaketak azaldu ditu.

Haritzaldeko ordezkariak azpimarratu du planak helburu nagusi eta bakar bat izan beharko lukeela: biodibertsitatea eta enklabea babestea; hori dela eta, adierazi du ez zaiola egokia iruditzen eremu bat larretarako proposatzea. Gainera, adierazi du larreak jartzeko izango diren

pleno derecho.

El representante de Irabazi hace hincapié en la importancia de la formación de la ciudadanía, preparación psicológica y mental en situaciones de caos, identificando aspectos básicos y de autoconciencia, participación, autoprotección etc. Les parece que además de la Agenda 21 en escuelas, se deberían hacer actividades extraescolares, para formar a la gente en aspectos de co-responsablidad, cambio climático, residuos etc (por ejemplo, campaña de tuppers en hostelería), bicicletas eléctricas con puntos de recargas con energía verde, parkings disuasorios etc.

El Concejal delegado de Ecología, subraya la importancia del Plan de Adaptación al Cambio Climático que se complementa con el Plan de Acción de Klima 2050 y Plan Director de Residuos, entre otros, en los que se incorporan algunas de las acciones que se han apuntado. El Plan de Adaptación se aprobó el marzo en JGL y establece el compromiso del Ayto en este tema, que se ha diseñado con participación ciudadana, persona técnico municipal y expertos. Consta con 31 acciones en las que habrá que ir profundizando en algunas y otras se pondrán en marcha directamente.

La ciudadana nº 4 pregunta si se van a incorporar las acciones del Plan en el PGOU. El Concejal de Ecología le responde que existe dialogo entre el Plan de Adaptación, el PGOU y el Plan de Acción Klima DSS 2050.

El Director de Medio Ambiente indica que es primer Plan de Adaptación de la ciudad, y es asimismo, el primer documento aprobado en JGL en el que se indica que no va a haber más artificialización, pero hay desarrollos que ya están determinados. Aun y todo, en la próxima revisión del Plan General, el Plan de Adaptación y la Estratagia del Clima deberá estar desde el minuto 0 de la redacción del Plan General.

Asimismo, indica que el Plan está en marcha, se ha realizado ya la primera reunión con la mesa de Adaptación para determinar las acciones 2017-2018 con alta participación de todos los departamentos especificados, lo cual es muy positivo ya que habitualmente no se da este tipo de implicación.

## 3. Plan de Gestión de Mendizorrotz (Iranguen eta Egiluze)

La Jefa de Servicio de Calidad Ambiental presenta las modificaciones realizadas en el Plan de Gestión de Mendizorrotz.

El representante de Haritzalde reitera que el objetivo principal y único del Plan debería ser el de la protección de la Biodiversidad y la protección del enclave, por lo que reitera que la propuesta de que haya una zona dedicada a pastos no

kostuetan ez direla sartu, esate baterako, itxiturak mantentzeko lanak, ez eta horiek kentzeko lanak ere, hala egin behar denean. Hala ere, adierazi du oraingo proposamena egokiagoa iruditzen zaiola aurrez egindakoa baino. Era berean, adierazi du azterlanean agertzen diren suaren norabideak ez direla egokiak eta uste duela garrantzitsua izan daitekeela suebaki bat izatea iparraldetik hegoaldera. Interesgarria litzateke, orobat, 2 m uztea bide bakoitzaren ondoan, suebaki gisa. Horrez gain, komenigarria da sute arriskua dagoen egunetan Foru Aldundiari eskatzea suhiltzaile talde berezi bat egotea alde horretan.

Ondorioztatu du eremua babesten egin beharko lituzketela ahaleginak, eta, hori dela eta, berriz ere harremanetan jarri beharko luketela inplikatutako beste udalerriekin. Babesa itsasaldera zabaldu beharko lukete.

Eguzkiko ordezkariak esan du proposamen hori aurrekoa baino egokiagoa iruditzen zaiola, besteak beste, larretarako proposatutako eremua txikiagoa delako lehen proposatutakoa baino. Ez zaio egokia iruditzen erregai etenaren terminologia, ez baitu ondo adierazten larretarako izango dela. Uste du abeltzainen erregistro bat sortu beharko litzatekeela eta Aldundiari eskatu beharko litzaiokeela Udalaren Kudeaketa Planaren antzeko zerbait egiteko, Aldundiak alde horretan dituen lursailetarako. Adierazi du gehiegizkoa iruditzen zaiola jardueretarako 4 urteko epea jartzea eta lehenago egin beharko liratekeela. Horrez gain, eskatu du, kudeaketa eremutik kanpo egon arren, susta dadila arrain haztegia zegoen aldea lehengoratzea.

Seobirdlifeko ordezkariak galdetu du nor arduratuko den habia kutxak jartzeaz eta horien jarraipena egiteaz, Aldundia ala Udala. Ingurumen Osasunaren Zerbitzuaren buruak adierazi du Udalak egingo duela lan hori.

## 4. Uliako Plan Berezia

Ingurumeneko zuzendariak azaldu du puntu hau. Adierazi du, Lurralde Plan Partzialaren arabera, ezin dela Uliako Plana onartu Pasaiako Udalarekin adostu gabe. Hori dela eta, Udalaren asmoa da Tokiko Gobernu Batzarrean kudeaketa plan gisa onartzea eta planean jasotako ekintzak egiten hastea.

Eguzkiko ordezkariak galdetu du nola kontrolatuko den Herri Ametsa alderako proposatu den aparkalekurako sarrera. Erantzun diote hainbat kontrol sistema daudela eta gaur egun ez dagoela horretarako presio handirik. Ingurumeneko zuzendariak adierazi du bide justuak mantendu eta izango dituztela; hau da, bide nagusiak bakarrik mantenduko dituzte.

Haritzaldek adierazi du berriz eskatu beharko luketela itsasaldea ere babesteko, KBEan sartuta.

le parece adecuado. Además, indica que en los costos necesarios para adecuar pastos, no está incluido el mantenimiento, por ejemplo de cierres, ni la retirada cuando proceda. No obstante, indica que le propuesta actual le parece más adecuada que la propuesta realizada con anterioridad. Asimismo, indica que las direcciones de fuego que se indican en el estudio no son adecuados y que entiende que puede ser importante que haya un cortafuegos norte sur. También sería interesante dejar 2 m junto a cada camino para que haga de "cortafuegos". Asimismo, aconseja que en los días en los que se indique que hay riesgo de incendios se solicite a Diputación que exista un retén especial de bomberos en la zona.

Concluye que se deberían dedicar los esfuerzos a la Protección del Ámbito por lo que se deberían retomar los contactos con los otros municipios implicados. La protección debería extenderse a la zona marina.

El representante de Eguzki indica que esta propuesta le parece más adecuada que la anterior, entre otras porque la zona propuesta para pastos es inferior a la propuesta anterior. No le parece adecuado la terminología de discontinuidad del combustible ya que no refleja adecuadamente que se destinará a pastos. Entiende que debería de crearse un registro de ganaderos y se debería solicitar a Diputación que hiciera algo similar al Plan de Gestión del Ayuntamiento para los terrenos que dispone Diputación en la zona. Comenta que de las actuaciones le parece excesivo el periodo de 4 años y que se deberían realizar antes. Solicita asimismo, que aunque esté fuera del ámbito de gestión se impulse la recuperación de la zona en la que se ubicaba la antigua piscifactoría.

El representente de Seobirdlife pregunta si la colocación de las cajas nido y el seguimiento va a ser realizada por Diputación o por el Ayuntamiento. La Jefa de Servicio de Salud Ambiental le indica que va a ser realizada por el Ayuntamiento.

## 4. Plan Especial de Ulía

El Director de Medio Ambiente hace la exposición del punto. Indica que según el PTP no se puede aprobar el Plan de Ulía sin acordarlo con Pasajes. Por ello, la idea del Ayuntamiento es que se apruebe como Plan de Gestión en Junta de Gobierno Local y se empiecen a desarrollar las acciones recogidas en el Plan.

El representante de Eguzki pregunta, en relación a la zona de aparcamiento propuesta para la zona de Herri Ametsa, como se va a controlar el acceso. Se le responde que hay varios sistemas para el control y que en la actualidad no hay excesiva presión para la misma. El Director de Medio Ambiente indica, asimismo, que se será restrictivo con el mantenimiento y existencia de caminos, solo se mantendrán los principales.

Desde Haritzalde se indican que se debería volver a solicitar

Era berean, ehizari buruzko informazioa eskatu dute, eta erantzun diote Aldundia aztertzen ari dela zer postu dauden eta bideetatik zenbatera dauden.

Seobirdlifeko ordezkariak galdetu du harremanik izan al duten Pasaiako Udalarekin ehizari buruz hitz egiteko.

Eguzkik eskatu du berrikus dadila duela 7 bat urte egindako azterlana, ehiza postuak geolokalizatzekoa, eta berrikus dadila bai informazio hori eta bai Aldundiak ehiza postuen inguruan duen informazioa.

Eguzkiko ordezkariak berriz eskatu du Plan Bereziaren kopia, paperean.

Aranzadiko ordezkariak adierazi du kezkatu egiten duela Mendiolatik sarbide bat egiteak, horrek izan ditzakeen ondorioengatik.

Irabaziko ordezkariak galdetu du nola amaitu nahi duten Arbola pasealekua.

Ingurumeneko zuzendariak erantzun dio Mendiola bideari dagokionez, lehendik dagoen bidea erabiliko dela eta itxitura kenduko dutela; horrez gain, bidearen amaieran aparkaleku batzuk jarriko dituzte.

Arbola pasealekuari dagokionez, helburua da irisgarria izatea denentzat, are mugikortasun murriztua duten pertsonentzat ere. Eguzkiri ez zaio beharrezkoa iruditzen hori, eta uste du horrek motoz edo bizikletaz doazenak erakar ditzakeela.  Eskatu du hori berrikusteko.

Bizikleten kontua ez dago erabakita, baina asmoa da autoentzako bideetan soilik uztea bizikletaz ibiltzen, edo bizilagunen autoentzat mugatutako bideetan.

Haritzaldek adierazi du ez zaiola egokia iruditzen bizikletak onartzea, eta adierazi du, Oarsoaldean bakarrik, bost enpresa daudela bizikletekin loturiko turismoa sustatzen dutenak. Gainera, kontuan izan beharko lukete mendiko bizikleta elektrikoak ere izan daitezkeela.

## 5. Eskariak eta galderak

Haritzaldek berriz eskatu du Cristina Enea parkean moztutako zuhaitzei buruzko txostena. Era berean, adierazi du garai hau, bai kasu honetan eta bai egin den azkeneko esku hartzean, ez dela egokiena zuhaitzk mozteko, ugaltze garaia denez gero.

Bestalde, uste du Udalak ez duela jarrera egokia izan Belartzan edo Lourdes Txikin egin diren jardueren aurrean. Belartzaren kasuan, adierazi dute hainbatetan eskatu

que se protegiera también la zona marina incluyendo en el ZEC la misma.

Asimismo, solicitan información sobre el tema de la caza a lo que se les contesta que Diputación están realizando una revisión de los puestos  y la distancia de los mismos a los caminos.

El representante de Seobirdlife pregunta si se han mantenido contactos con el Ayuntamiento de Pasajes sobre el tema de la caza.

Eguzki solicita que se revise el estudio realizado hace unos 7 años, en los que se geolocalizaron los puestos de caza y se revise tanto esta información como la de  Diputación en relación a los puestos de caza.

El representante de Eguzki vuelve a solicitar una copia en papel de Plan Especial.

El representante de Aranzadi indica que le preocupa que se abra el acceso desde Mendiola por la afección que esto pueda tener.

El representante de Irabazi pregunta sobre como se pretende terminar el Camino de Arbola.

El Director de Medio Ambiente responde que en cuanto al camino de Mendiola, se utilizará el vial existente eliminando el cierre y con el   acondicionamiento de algunas plazas de aparcamiento al final del vial.

En cuanto al Paseo de Arbola, el objetivo es que sea accesible para personas incluidas las de movilidad reducida. Eguzki no lo considera necesario y cree que puede ser de incentivo para personas que van en motos o bicicletas.  Solicita que se revise al respecto.

El tema de bicicletas no está determinado, pero la idea sería solo dejarlo en los viales de coches, o en aquellos que están restringidos para coches de vecinos.

Haritzalde indica que no le parece adecuado admitir el acceso de bicicletas e informa que solo  en Oarsoaldea hay 5 empresas que se dedican a organizar turismo relacionado con bicicletas. Además, habría que tener en cuenta que puede haber uso de  bicicletas eléctricas de montaña.

## 5. Ruegos y preguntas

Haritzalde vuelve a solicitar el informe sobre la tala de árboles en el  Parque Cristina Enea. Asimismo, indica que el momento de la tala en que se ha realizado tanto ésta como la más reciente no es adecuada por coincidir con época de cría.

Le parece, asimismo, que no es adecuada la postura del Ayuntamiento en cuanto a actuaciones como la de Belartza o

| | |
|---|---|
| dietela txostena Ingurumen Zuzendaritzari, baina erantzun dietela barruko txosten bat dela eta ezin dutela eman. Lourdes Txikiri dagokionez, adierazi dute ikastetxeak urteak zeramatzala eremu horretan esku har zezatela eskatzen eta ez dutela ulertzen zer dela-eta jardun duten halako presaz azken unean; izan ere, ez zituzten lanak planifikatu, eta gerora ari dira lanak egonkortzen. Adierazi dute botatako hariztia balio handikoa zela, eta, jarduera egin duten moduagatik, Ekintzako jolastokiaren erabiltzaileentzat segurtasun handiagoa lortu beharrean, kontrakoa lortu dutela. | Lourdes Txiki. En el caso de Belartza indican que han solicitado el informe del departamento de Medio Ambiente varias veces y que se les ha contestado que al ser un informe interno no procede aportarlo. En lo que a Lourdes Txiki se refiere, indican que el centro escolar llevaba años solicitando actuaciones en este ámbito y que no se entienden las premuras de último momento ya que no se realizó planificación de los trabajos, con lo cual se están realizando trabajos de estabilización a posteriori. Indican que el robledal talado era de gran valor y que por la forma en que se ha realizado la actuación en vez de conseguir una mayor seguridad para los usuarios del patio de Ekintza se ha conseguido lo contrario. |
| Aranzadiko ordezkariaren ustez ere ez zen jarduera egokia izan, baina eskertzen dio Ingurumen Zuzenaritzari hura geratu izana, nahiz eta behin-behinean izan. Adierazi du kezkagarria dela Igeldo ingurua gero eta gehiago urbanizatzea; izan ere, eraikitzeko baimen gehiago ematen ari dira orain. Horregatik, azpimarratu du Mendizorrotzeko gailurreria babestu behar dela, alde horretako ingurumena ez hondatzeko. | El representante de Aranzadi está de acuerdo en que esta actuación no fue adecuada pero agradece que el Departamento de Medio Ambiente lo paralizara aunque solo fuera provisionalmente. Indica que es preocupante como cada vez se está urbanizando más la zona de Igeldo en la que se están dando más autorizaciones de construcción. Por eso, insiste en que hay que proteger el cordal de Mendizorrotz para evitar el deterioro ambiental de esta zona. |
| Eguzkiko ordezkariak jakinarazi du Igarako errekan etengabe izaten direla isuriak eta apar zuria ageri dela. Ur Agentziari egoera horren berri eman diote eta haiek erantzun dute horren arrazoia dela ur beltzak euri uren sarera konektatuta daudela eta Udalak baduela horren berri. | El representante de Eguzki informa de que se producen vertidos continuos a la regata de Igara, en la que se aprecian espumas blancas y que tras realizar una denuncia a Ur Agentzia han obtenido como respuesta que esto es debido a la existencia de conexiones de fecales a la red de pluviales y que el Ayuntamiento está al tanto. |
| Bainatzeko uren kalitateari dagokionez, adierazi du ez duela uste badian ainguratutako itsasontzietako hondakin uren ondorio direnik kutsadura aldiak. | En cuanto a la calidad de las aguas de baño,indica que no cree que el origen de los episodios de contaminación sea debido a las aguas residuales de los barcos fondeados en la bahía. |
| Irabaziko ordezkariak azaldu du portuan ez dagoela garbiketa zerbitzurik eta Ingurumen Osasunaren Zerbitzuko ordezkariak esan du horri buruzko informazioa bilduko duela. | El representante de Irabazi expone que en el puerto no hay servicio de limpieza, la representante del Servicio de Salud Ambiente se encargará de recabar información sobre el tema. |
| SeoBirdlifeko ordezkariak azaldu du berriki egin diren zuhaitz mozketek natura kontserbatzeko hainbat lege urratu dituztela; izan ere, ugaltze aldietan debekatu egiten dute zuhaitzak moztea eta horretarako baimenak eman izanak isunak ekar ditzake. Horrez gain, adierazi du 53. Ingurumeneko Aholku Kontseiluan, fatxadetan enara azpizuria babesteaz jardun zutela eta araudi espezifiko bat sortu beharko luketela. | El representante de Seo birdlife, expone que en las recientes talas realizadas se han contravenido varias leyes de conservación de la naturaleza que prohíben la tala en periodos de reproducción y la autorización de las talas podría conllevar sanciones. Asimismo, expone que en el CAMA 53, se trató de la protección de avión común en fachadas, y se debería crear una normativa especifica. |
| Eguzkiko ordezkariak informazioa eskatu du Igeldoko kanpineko saneamenduaren inguruan, Hyla Meridionaliseko putzuetan izan dezakeen eraginarengatik. | El representante de Eguzki solicita información sobre el Saneamiento del Camping de Igeldo por la afección que este puede tener sobre las charcas de la Hyla Meridionalis. |
| Ekologiako zinegotziak hitzeman du informazio eskaerei erantzungo dietela, bileraren akta bidaltzeaz batera. | En Concejal de Ecología se compromete a enviar la respuesta a las solicitudes de información junto con el acta de la reunión. |